

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Testuen ahoz gorako irakurketa egitea eta esatari lanetan aritzea.	<p>1.1. Ahozko testuetan, ez-hitzezko baliabideek duten garrantzia ulertzeko gai da.</p> <p>1.2. Azken ekoizpenean hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiltzeko gai da.</p> <p>1.3. Intonazio, dikzio eta ahoskera egokiz irakurtzen du testua.</p>
2. Hizkuntzarekin jolas egiteko baliabideak ezagutzea: esaera zaharrak eta asmakizunak.	<p>2.1. Euskal atsotitzak ezagutu eta haien esanahia definitzen du.</p> <p>2.2. Euskal atsotitzen esanahia ulertzen du.</p> <p>2.3. Asmakizunen ezaugarriak ezagutzen ditu.</p> <p>2.4. Asmakizun laburrak sortzen ditu ikasitako urratsak jarraituz.</p>
3. Komiki bat sortzea.	<p>3.1. Komikiaren ezaugarri nagusienak identifikatzen ditu (binetak, bokadilloak, aurpegierak, planoak...).</p> <p>3.2. Komiki bat sortzeko urratsak ezagutzen ditu.</p> <p>3.3. Komiki bat sortzeko urratsak jarraitzen ditu.</p> <p>3.4. Atsotitzen esanahitik edota asmakizunetik abiatuta narrazioa eta komikia sortzen du.</p>
4. IKTak erabiltzea informazioa era eraginkorrean bilatzeko eta testuak sortzeko zein editatzeko.	<p>4.1. IKTak erabiltzen ditu sekuentzian eskatutako informazioa bilatzeko.</p> <p>4.2. IKTak erabiltzen ditu testuen idazketa egokirako.</p> <p>4.3. IKTak erabiltzen ditu komikiak sortzeko (toondo, comic creator, pixton).</p>